


## OTSAILA

### ZERURA BEGIRA

Urtarrilean hasitako joerari jarraituz, otsailean ere egunaren luzera hazi egingo da. Ordubete eta hamar bat minutu irabaziko ditu otsailaren 1a eta martxoaren 1a artean.

Otsailak	2,	20,30etan, ilgora
"	9,	19,16etan, ilargi betea (ilbehera hasi eta eklipsea)
"	17,	20,48etan, ilbehera
"	19,	00,15etan, eguzkia Piscis arora sartzen da
"	25,	10,54etan, ilargi berria (ilgora hasten da)

\* ordu ofizialak.



EREIN		LANDATU	UZTA
<b>BARATZA</b>	<b>Ilgora</b>		
	* Alberjina	* Tipulak	* Azak (denak)
	* Meloia	* Patata (goiztiarra)	* Azenarioa
	* Luzokerra	* Eskarola	* Gardua
	* Piperrak		* Txikoria
	* Tomatea		* Endibida
	* Baba (berandurako)		* Porrua
	* Ilarra (berandurako)		* Baba
			* Ilarra
			* Azenarioa
<b>Ilbehera</b>		* Gardua	
* Apioa		* Apioa	
* Arbi-apioa		* Eskarola	
* Letxua		* Azalorea	
* Arbitxoak		* Arbitxoak	
* Azenarioa			
* Tipulak			
* Eskarola			
* Espinaka			
* Ur-berroa			
* Azak (udarako)			
* Porrua (negurako)			

### FRUTARBOLAK

*Neguko tratamenduak gauzatzeko garai egokia (ikus "Elhuyar. Zientzia eta Teknika" 30. alea).*

*Hostoa galtzen duten frutarbolak landatzeko ere garaia dugu. Zuloak zenbat eta lehenagotik prestatuta edukiz gero, hobe. Kontuz ibili zuhaitza mintegitik atera eta bere behin-betirako lekuan ezarri baino lehen, zainak airean dituela izotzak harrapa ez ditzan.*

*Inausketa ere garai honetan egingo dugu, lehen eta azken izotzen arteko tarte honetan.*

*Oliondo-, hurritz-, eta zume-aldaskak landatzeko sasoi da.*

### BEHARREZKO HOTZ HORI

Azken urte hauetako negu kaxkarrak makina bat kontu entzuten dugu azken aldian. Esaera eta atsotitzen altxorretik bueltaxka bat eman besterik ez dugu, antzinako nekazariarentzat ere bere garaian hotz egiteak zenbaterainoko garrantzia zuen jabetzeko.

Baina, hotza beharrezkoa al da? Hainbestearainoko negu-premiak ba al du arrazoirik?

### NEGUA ETA LANDAREAK

Landare guztiak dute ziklo bat eta hurrengoaren artean atsedenaldirik bat hartzeko premia. Basamortu eta eremu lehorretan atsedenaldirik hori bero handiek eragiten dute, tropikoetan eurite izugarrien aurreko haize-bolada eta lehortek. Euskal Herria kasu, landareen sasoi apala edo atsedenaldirik neguak eragiten du, eta neguaren berezitasunik nabarmenena eta era berean eragilerik hadiena tenperatura da.

Landareek hotza somatu edo sentitzen dutenean, zer gertatzen da?

Teknikoki hotza, tenperatua 7°C-tik behera abiatzean hasten da. Gure lurraldean irailaren amaian. Orduan aldaketa nabarmen batzuk gertatzen dira landarean:

- Landareak bere gain dituen energia guztiak erreserbazatietara biltzen ditu (hala nola tuberkuluetara, erri-zomara, enborrera, etab.)
- Fotosintesia (landarearen energi-iturria) gelditzen hasten da. Honek hostoen margoaren aldaketa dakar; klorofila atzera gelditu eta beste pigmentuak agertzen bait dira: karotenoak (gorri-laranja) santofiloak (horiak), etab.
- Landareak inguruarekin dituen harremanak ia hutseraino jaisten ditu. Hala nola, hostoak botata (estomak, arnasketa-sistema osatzen dutenak bertan dauzka), azala lodituta, begien babesak ezkatak medio areagotuz, etab.

Hotzak eragindako aldaketa hauen ondorio nagusia landarea "lokartzea" da. Horrela udaberria somatzean ziklo berria indar berriz eta sasoiz hasteko gai da. Hostoak eta zain berriak osoki lanean jarri bitartean, erreserbatan jasota duen energia erabiliko du.

Atsedena/iharduera zikloa hautsiz gero, gure inguruko landare gehienek beren "bizitza-ordularia" galdu egingo lukete, eta ingurune naturalean beraien ondorena segurtatzen duten fruitu-haziak ekoizteari utzi egingo liokete. Eta gainera, beste klima berrira egokitutako zikloa duten landareek ordezkatuko lituzkete.

## NEGUA ETA ELURRA

Ikusi dugunez hotza dugu neguaren ezaugarriarik nagusiena eta honek lurrean bertan dituen eraginetan b i azpimarra ditzakegu:

- Lurrean beti dago ura nahasirik eta tenperatura jaistean, ura izotz bihurtzen den 0°C-ra erraz iristen da. Honek lurraren bolumenta hazi/konprimatu-prozesuetan sartzen du. Gure inguruko lur buztintsuetan



## ESAERAK

(Julian Alustizaren "Euskal Baserriaren inguruan" liburutik jasoak)

- \* Otsailean gizona manko-utsean baino, otsoa arditan ikustea hobe. (Arruazu)
- \* Otsaila firili faraila (Uztarrotz)
- \* Otsail txiki laburko, ez haiz besteak baino hobe
- \* Otsail laburko, beno andurko (maltzur)
- \* Otsailean lainoa noraino, elurra gero haraino
- \* Otsaileko ilbete elurra hi bete (Arantzazu)
- \* Otsaileko eguzki bero eta abenduko izarrak, atzetik laister dakazkitela elur edo kazkabarrak
- \* Kandelero hotz, negua joanen da motz; kandelero bero, negua gero (Saldias, Kandelari otsailak 2)
- \* Kandelario, lario haitzari ura dario (Aztiria)
- \* Kandelario, lario, hatxari ura dario, errotari uruna, haxe da guk bioguna (Lekeitio)
- \* Kandelario elurre dario San Josek ere lagunduko dio (Saldias)

txikizio hau oso mesedegarria da eta ondorioak nabarmenagoak izango dira baldin eta aurretik lurra jiratu badugu. Hona hemen bada, udaberrian landu nahi ditugun lurak udazkenean goldatu eta simaurtzearen garrantzia, azken hau ere hautsita lurrera ongi erantsirik geldituko delarik.

- Hotzak, aldi berean, lurrean gertatu ohi diren aldaketa eta prozesu kimiko gehienak bertan behera uzten ditu. Eta bere ondoriorik aipagarriena honakoa da: landareek lurretik hartzen dituzten elikagaien askatze-prozesuak "izoztea", udaberrian landareen premiekin batera haien eskura jarriko direlarik. Bestela neguko eurite ugarietako urek berehala eramango lituzkete beraiekin. ●